

2. MAILA

Azterketa idatzia

A EREDUA

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Azterketa idatzia bi zati izango ditu



Entzumena



Irakurmena eta idazmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da. Entzumenarekin hasi eta beste bi zatiak, irakurmena eta idazmena, ondoren.

Entzumena amaitu ondoren **ordubete eta 45 minutu** izango dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

	ARIKETA	Puntuazioa gutxienez	Puntuazioa gehienez	Proposatutako denbora
Azterketa idatzia	Irakurmena	---	20 puntu	45 min. inguru
	Idazmena	15	30 puntu	60 min. inguru
	Irakurmena eta idazmena	---	50 puntu	1h 45min
	Entzumena	---	20 puntu	

HADE

ENTZUMENA

1. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratian Italiako **albiste bitxi** bati buruz hitz egingo dute.

Entzun informazioa eta aukeratu erantzun zuzena.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Adibidea:

0. *Emakume italiar batek urtebete darama...*

- a. *jatetxe garestietan jaten.*
- b. *jatetxeetara diru eske joaten.*
- c. *jatetxeetako arduradunei mehatxu egiten.*

1. Zergatik atxilotzen dute emakumea?
 - a. Jendea iruzur egitera bultzatzeagatik.
 - b. Jatetxean istiluak eragiteagatik.
 - c. Jaten duena ez ordaintzeagatik.
2. Poliziak zergatik uzten du aske emakumea?
 - a. Egiten duenaz ez dela jabetzen esaten duelako.
 - b. Ordainduko duela hitz ematen duelako.
 - c. Jabeek egindakoa barkatu egiten diotelako.
3. Zergatik jokutzen du horrela emakumeak?
 - a. Atsegin zaiolako aberatsen janaria dastatzea.
 - b. Poza ematen diolako aberatsei ez ordaintzeak.
 - c. Horrela, aberats izaten ikasi nahi duelako.
4. Zer iritzi dute hizlariak emakumeak egiten duenaz?
 - a. Prest daude beren herrietan ere gauza bera egiteko.
 - b. Ez dute batere ongi ikusten emakumeak egindakoa.
 - c. Ongi iruditzen zaie emakumearen jokabide bitxi hori.
5. Zer esaten dute kazetariak Erromako jatetxe garestiei buruz?
 - a. Oso neurri estuak hartzen dituztela iruzurgileen kontra.
 - b. Urtebetez iruzurra errepikatzeko, jatetxe asko dagoela.
 - c. Erroman ez dagoela jatetxe garesti asko, ikusitakoa ikusita.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

<i>a</i> a	1	2	3	4	5
-------------------	---	---	---	---	---

HABE

ENTZUMENA

2. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratian **Jakoba Errekondok** kalamua edo marihuanari buruzko informazioa emango du.

Entzun informazioa eta aukeratu erantzun zuzena.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Adibidea:

0. Jakobak dio Kataluniako Osasun Sailak plangintza jarriko duela martxan ...

- a. kalamuaren edo marihuanaren erabilera terapeutikoa ikertu eta legeztatzeko.*
- b. kalamuaren edo marihuanaren erabilera orokorra ikertu eta legeztatzeko.*
- c. kalamuaren edo marihuanaren antzinako erabilerak aztertzeko.*

1. Noiz eta non hasi zen kalamua gaixoentzat erabiltzen?

- a. Frantzia Erdi Aroan hasi, eta ondoren Ingalaterran.
- b. Ingalaterran eta Frantzia hasi, eta ondoren Ameriketara.
- c. Duela milaka urte Asian, eta ondoren Europan.

2. Ikerketen arabera, zertarako da ona, batez ere, kalamuaren erabilera?

- a. Gaixotasun larri batzuetan, mina kentzeko ez, baina bai pisuari eusteko.
- b. Gaixotasun larri batzuetan, mina kentzeko eta pisu arazoei aurre egiteko.
- c. Zenbait gaixotasun arinetan, gaixoak behar badu, argaltzeko eta lasaitzeko.

3. Zein da kalamua hartzeko erarik onena?

- a. Ohiturak ziurtatzen du hostoak erretzea dela onena.
- b. Kalamua edozein eratara har daiteke, inolako arazorik gabe.
- c. Kalamua infusioan hartzea, koipea duen zerbaitekin nahasita.

4. Kalamuaren ondorio onak ...

- a. ez dira frogatu, ez gaixotasun larrietan ez bestelakoetan.
- b. gaixotasun larrietan frogatu dira, baina ez bestelakoetan.
- c. argi ikusi dira, ikerketarik izan ez duten gaixotasunetan ere.

5. Bartzelonako ikerketa batek frogatzen du...

- a. gaixo gehienek medikuari esan gabe erretzen dutela kalamua.
- b. gaixo gehienek kalamua infusioan hartzen dutela.
- c. gaixoek badakitela nola hartu behar duten kalamua.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0- a	1	2	3	4	5
-------------	---	---	---	---	---

IRAKURMENA

1. TESTUA

Kirmen Uribe Garan idatzitako iritzi-artikulu bat irakurriko duzu.

1. egitekoa

Irakurri testua eta ondorengo galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi letra beheko laukietan, adibidean egiten den bezala.

GATZA

Gogoratzen dudan lehenbiziko gauza zein den galdetuko balidate, ez nuke jakingo oso ondo zer erantzun. Badaude irudiak, lausoak eta definiziorik gabekoak gehienetan, badaude zaratak, baina argien gogoratzen dudana usaina da, antxoa-xerren usaina. Izan ere, ama eta izeba askotan egoten ziren antxoa-xerrak egiten etxeko sukaldetan. Eta ni jolasean ibiltzen nintzen bien bitartean, mahai azpian.

Xerren prozesua luzea izaten zen. Lehenbizi, udaberrian, tamaina oneko antxoak harrapatzen zirenean, gorde egiten ziren. Ondo garbitu, eta latetan sartzen zituzten etxeko emakumeek. Latak biribil-biribilak izaten ziren, sakonak eta handiak. Lehenbizi gatz lodia botatzen zen lataren hondo-hondora. Gero, antxoak jartzen ziren, bata bestearen alboan, ilaran. Ilara bat betetzen zutenean, gatz lodia berriz ere gainera, eta ondotik beste antxoa ilara bat, baina aurrekoaren kontrara. Gero, gatz lodia berriz ere. Horrelaxe lata antxoaz gainezka egon arte.

Lata betetzean muera botatzen zen. Muera, ura gatzarekin. Ur gazi-gazia izaten zen. Eta gatz tamaina egokian zegoela jakiteko patata bat botatzen zuten uretara, ea ur azalean geratzen zen ikusteko. Patata hondoratzen ez bazen prest zegoen muera. Azkenik, latari tapa jarri eta harri handi bat jartzen zitzaion gainean, hondartzako harri handi horietako bat, edo adokin zahar bat, zergatik ez, ura bota zezan.

Eta hantxe egoten ziren gorderik antxoak, ezkutuan eta ilunetan, hilabete luzez. Eta garbitzeko garaia iristen zen

halako batean. Erdiko hezurra kendu eta xerrak ateratzen zituzten amak eta izebak, xerra xamur-xamurrak. Eta ni zer gerta ere, hantxe egoten nintzen mahai azpian, hanka tartean jolasean, xerraren bat emango zidaten esperantzaz.

Antxoa-xerrak egitearena beti izan da emakumeen lana. Kontserba-lantegietan haiek egoten ziren lanean duela ehun eta berrogeita hamar urte italiar familiak hona etorri eta lantegiak zabaltu zituztenetik. Emakumeak lanean, neska-koskorak zirenetik. Oraintsu arte.

Gaur, aitzitik, antxoaren eskasiarekin lantegietako lan baldintzak okertu egin dira dexente. Hortxe ikusten ditut kaletik emakumeak, manifestazioa egiten, herriko bazterretan. Emakume langileen manifestazioak, haurrak gurdietan eramaten dituztela.

Badago gatzarekin lotutako esaera bat herrian: gatz eman. Gatz emateak esan nahi du atzean uztea, albo batera uztea, haizea hartzera bidaltzea. Behin gatz eman arraina iragana baita, beste arrain bati iristen zaio txanda. Bada, gatz eman beharko genieke lan baldintza okerre, gatz, eskubideak ez betetzeari.



Kirmen Uribe. Gara 2006/06/19

HADE

Adibidea:

0.- Txikitako oroitzapenetatik zein du bereziki gogoan Kirmen Uribek?

- a. amak eta izebak, antxoak ontzietan sartzen ari zirela, egiten zuten zarata.
- b. ama eta izeba antxoak ontzietan sartzen aritzen zirenean, sortzen zen usaina.
- c. amak eta izebak, antxoak ontzietan sartzen ari zirela, osatzen zuten irudi lausoa.
- d. bere burua ikusten du txikitan antxoak ontzietan sartzen, ama eta izebarekin batera.

1. Nola prestatzen dira ontziko antxoak?

- a. Gatza antxoak sartu aurretik, eta ontzia antxoaz bete ondoren, botatzen da.
- b. Gatza antxoa bakoitzari eman behar zaio, ontzian sartu baino lehen.
- c. Gatza soilik amaieran botatzen da ontzian, antxoaz beteta dagoenean.
- d. Gatza ontzia hutsik dagoenean, eta antxoa ilara bakoitzean botatzen da.

2. Zertarako erabiltzen zituzten patata eta harria, antxoak ontzietan jartzean?

- a. Patata, antxoen ura askatzeko eta, harria, gatza ongi itsasteko.
- b. Patata, kolorea emateko eta, harria, antxoak latan hobeto estutzeko.
- c. Patata, gatz nahikoa zuten jakiteko eta, harria, ura askatzeko.
- d. Patata, zapore berezia emateko eta, harria, lata ixten laguntzeko.

3. Antxoak garbitzeko garaian zer egiten zuten?

- a. Amak eta izebak antxoei hezurak kendu, eta xerrak egiten zituzten.
- b. Amak eta izebak, idazlearekin batera, antxoa xerra xamurrak jaten zituzten.
- c. Hirurak antxoak garbitzen, hezurra kentzen eta xerrak egiten aritzen ziren.
- d. Kontserba-lantegietara eramaten zituzten antxoak garbitu eta xerrak egitera.

4. Zertarako erabiltzen da testuan "gatza eman" esaera?

- a. Zerbait ongi nola kontserbatu behar den esateko.
- b. Zerbait pikutara bidali behar dela adierazteko.
- c. Zerbaitek gustu gutxi duela esateko.
- d. Zerbait berriro egin behar dela esateko.

5. Zein da idazlearen asmoa, artikulua idazterakoan?

- a. Emakumeen lana gero eta erosoagoa dela esan nahi du.
- b. Lehen orain baino lan gehiago egiten zela esan nahi du.
- c. Herriari kontserba-lantegiak eman dion aberastasuna goraipatu nahi du.
- d. Emakumeen lan baldintza txarrak salatu nahi ditu.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0- b	1	2	3	4	5
-------------	---	---	---	---	---

2. TESTUA

Anjel Lertxundi idazlearen nobela baten pasarte bat irakurriko duzu.

Wagner izeneko mutil gazte alemaniar hitlerzalea da nobelaren protagonista. Mutilak nazien garaian bere inguruan gertatzen ari zena kontatzen digu.

1. egitekoa

Irakurri testua, eta protagonistaren **sentipenak eta ekintzak** ongien **laburtzen** dituen paragrafoa aukeratu.

2. egitekoa

Zenbait hitzen **esanahia** aurkitu behar duzu testuan.

3. egitekoa

Hitzen erreferentzia testuan aurkitu behar duzu. Hitzak testuan beltzez azpimarratuak dituzu.

13

MODU UGARI NEUKAN Alemaniaren alde egiteko eta ahal nuen guztian laguntzen nuen. Ez nintzen bakarra, gauza bera egiten zuen nik ezagutzen nuen neska-mutil askok. Botila hutsak batzen genituen etxez etxe garagardogile eta dendariei saltzeko; jasotako dirua, Alderdiaren hainbat sorospen-erakundetara bidaltzen genuen. Burdina edo kobrea, kartoia, baztertutako arropa, teilak, ferrak, karburadun lanpara zaharrak, **denetatik** jasotzen genuen eta beti zegoen Alderdiarekin zerikusirik zuen erakunderen bat guk jasotakoari errentagarritasuna ateratzeko prest.

Arropa zaharraren bila ari ginen batean ezagutu nuen frau¹ Gerda.

Egia esateko, aspalditik ezagutzen nuen, ia egunero ikusten nuen eta, etxetik eskolara nindoala, puntua egiten eta puntua egiten bere etxeko **balkoi beiradunean**. Amona Erikaren adin bertsukoa, gaztetan elkarrekin ibiliak ziren eskolan, baina egunen batean haserretu egin ziren, ez dakit ondo zergatik, amonak ez zuen-eta hartaz hitz egin nahi izaten. Behin amari entzun nionez, amona Erika asko mindu zen naziek Faulhaber kardinala harrikatu zutenean; orduan utzi omen zion Hitlerrengan sinesteari, eta jende askorekin hautsi zuen nonbait kardinala defendatzeagatik. Agian frau Gerdarekin ere bai? Nire hipotesia da, ez besterik. Nolanahi ere, amonak beti esaten zuen frau Gerda erotuta zegoela, **ez zela parte onekoa** haren puntua egin behar sukartsua. Katolikotasunaren eta Hitlerren artean aukeratzeko premia izan zuenean, amonak katolikotasuna hautatu zuen. Ez nengoen ados, baina ulertzen nuen: amona Erika garai iragan bateko pertsona zen. Eta frau Gerda? Ero bat: ezin zitzaion beste modu batean deitu egun osoa galtzorratzei eragin eta eragin aritzen zen atso bati.

¹ Frau hitzak **andrea** esan nahi du alemanez.

HADE

Hartan, behintzat, amona Erikak arrazoi zuen.

Ero bat: errazago eramaten nuen amona Erikaren katolikotasun sutsua, eromena baino. Gerra Handiak eragindako zoro, itsu, **maingu eta herren** ugari ikusten zen bazterretan, **haietako** askok Estatuaren kontura ateratzen zuen bizimodua. Niretzat, porrotaren hondakinak ziren, zaborra: eritasun fisikoak pixkanaka-pixkanaka barneko dohainak ere ahuldu egiten dituelakoan nengoen, nahiko garbi ikusita nuen hori etxean, eta seguru nengoen frau Gerdaren zorotasuna eta aitaren herrena bezalako kasu bat izango zela.

30 Behin, trapu zaharrak biltzen ari ginen hartan, frau Gerdaren etxe paretik igaro ginen, eta Hermannek eskua jasota agurtu zuen. Tratua duk atso ero horrekin?, galdetu nion. **Kopeta belztu** eta aldartea ilundu zitzaion, atsoa deitzeaz gainera, erotzat hartu nuelako. Ez nuela ezagutzen, ez nekiela zer den Alemania maitatzea. Mirespen handiz hasi zitzaidan frau Gerdaz hizketan. Munduan aleman onik bazegoen, Soldaduen Amona zela huraxe (hala deitu zion Hermannek, Soldaduen Amona); ia astero joaten zitzaiola bisitan eta ez zela **horretaz** lotsa.

Hator nirekin, egin zidan gonbita.

40 Nik ez nuen gogo zipitzik, baina Hermann halako moduz eman zion kasketak frau Gerda ezagutu behar nuela, ezen besotik heldu baitzidan eta ezkaratzeraino eraman. Arropa zaharren zakua zoko batean utzi eta, eskaileretan gora gindoazela, ez dakit zenbat urte lehenago gertatutako istorio bat kontatu zidan. Elur ekaitz batek mendiko praktikak egiten ari ziren bost soldadu harrapatu omen zituen bete-betean. Egunak behar izan zituzten gorpuak elur azpitik ateratzeko. Soldaduetako bat frau Gerdaren semea zen, zuen bakarra. Tragedia haren ondoren, puntua egite sukartsuari ekin zion.



(Ihes betea, Alberdania, 2006)

© Ihes betea

HADE

1. Egitekoa:

1. Lau adierazpen hauetatik (A, B, C, D) zein da **protagonistaren sentipenak eta ekintzak** ongien laburtzen dituenen. Idatzi letra beheko laukian.

- A Nobelaren protagonistak, beste neska-mutil alemaniar asko bezala, hondakinak biltzen aritzen dira zaharrei eta behartsuei emateko. Frau Gerdak ere soldaduei laguntzeko noizean behin puntua egiten du. Bere lana asko estimatzen dute bai protagonistak eta bai bere lagun Hermannek.
- B Nobelaren protagonistak nazien alde egiten du lan hondakinak biltzen. Horrela diru pixka bat irabazten du eta etxean laguntzen du, gerraren ondorioz, aita herrena baitu. Hermann bere lagunak soldaduen amona aurkezten dio, biek miresten zutelako.
- C Nobelaren protagonistak nazien alderdiari laguntzeko hainbat hondakin biltzen lan egiten du. Laguntzeko era hori ongi ikusten badu ere, frau Gerdak egiten duena zoro baten lana dela uste du. Hala ere, bere lagun Hermannek kontrakoa pentsatzen du eta frau Gerda miretsi egiten du.
- D Nobelaren protagonista erabat ados dago bere amonarekin eta frau Gerdarekin. Zaharrek eta ahulek beti arrazoi dutela uste du, bai erlijioan eta bai politikan. Horregatik biltzen ditu hondakinak, gerran zaurituei laguntzeko.

Protagonistaren **sentipenak eta ekintzak** ongien laburtzen

dituen adierazpena

da.

HADE

2. Egitekoa:

Zer esan nahi dute testuan ondoren beltzez idatzita dituzun adierazpenek.
Aukeratu ezazu erantzun egokia eta idatzi beheko laukietan, adibidean egiten den bezala.

0. **etxeko balkoi beiradunean** ... (10. lerroan)

- a. ...*etxeko balkoitik begira*
- b. ...*kristalez itxitako balkoian*
- c. ...*etxeko burdinazko balkoian*

1. **ez zela parte onekoa** ... (16. lerroan)

- a. ...*ez zekiela ongi puntua egiten*
- b. ...*susmo txarra ematen zuela*
- c. ...*haserretu egiten zela*

2. **maingu eta herren** ugari ... (23. lerroan)

- a. ...*zauritu larriak eta arinak, era guztietakoak*
- b. ...*hildakoak eta hilzorian zeudenak*
- c. ...*besoa galdu edo hanka zauritutakoak*

3. **kopeta belztu** ... (29. lerroan)

- a. *haserretu*
- b. *beltzez margotu*
- c. *kopetan jo*

0-b	1	2	3
-----	---	---	---

3. Egitekoa:

Ondorengo **hitzen erreferentzia** testuan aurkitu behar duzu. Hitza testuan beltzez azpimarratua duzu.

Erreferentziak aurkitu eta beheko marretan **idatzi**, adibidean egiten den bezala.

0. Adibidea:

Zeri egiten dio erreferentzia **denetatik** hitzak (5. lerroan)?

Denetatik jasotzen zuten? Zer? Era guztietako hondakinak.

1. Zer da **haietako** (24. lerroan)?

Haietako askok Estatuaren kontura, nortzuk? _____

2. Zer da **horretaz** (33. lerroan)?

Ez zela *horretaz* lotsa, zertaz? _____

HABE

IDAZMENA

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 200 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
 - eskatutakoari erantzun diozun
 - testu egokia osatu duzun
 - euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu).

Gaur egun, oso tresna ezaguna da eskuko telefonoa edo telefono mugikorra. **Euskal Irrati Telebistak (EITB)** gai hau aukeratu du hilabete honetan, ikus-entzuleen iritzia biltzeko.

Hau da egin duen galdera:

Nola erabiltzen dugu eskuko telefonoa?

Erantzunak Internet bidez idatziz bidaltzeko eskatu die ikus-entzuleei.

Eman zure iritzia.

Gutxienez, **200 hitz** idatzi behar dituzu.

Badirudi, gaur egun, nahitaezkoa dela eskuko telefonoa erabiltzea:
Zure iritziz:

Nola erabiltzen dugu eskuko telefonoa?

Iritzia emateko, nahi baduzu, ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Noiz, nola, zertarako erabiltzen duzun eskuko edo sakelako telefonoa
- Bizi daiteke/zaitezke telefono mugikorrik gabe?
- Zure inguruan ikusten duzuna (gazteak, haurrak...)
- Telefonoa erabiltzeko lehengo eta oraingo ohiturak alderatu
- Eskuko telefonoen abantailak eta desabantailak
- Telefono konpainien jokabidea, negozioa...
- Telefonoen gastua
- Arazorik ikusiz gero, egoera aldatzeko proposamenen bat
- Gomendioren bat telefonoak erabiltzeko orduan
-

HADE

**Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)**



HABE

Ikus-entzuleen iritzia



Nola erabiltzen dugu eskuko telefonoa?
--



Idatzi hemen zure iritzia

[illegible]

HABE

Ikus-entzuleen iritzia

[illegible]

HABE

[illegible]

HADE

BIGARREN MAILAKO AZTERKETA ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

BIGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

Proba idatzia %50	Irakurmena	%20		20 puntu	45 min. inguru
	Idazmena	%30	gutxienez 15	30 puntu	60 min.
Ahozko proba %50	Entzumena	%20		20 puntu	25 min.
	Mintzamena	%30	gutxienez 15	30 puntu	10 min.
GUZTIRA		%100	gutxienez 60	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 60 puntu beharko dituzu eta 30 proba bakoitzean. Proba idatzian, gutxienez, 15 puntu lortu beharko dituzu idazmenean, eta, ahozko proban, 15 puntu mintzamean.

Agiria eskuratzeko ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) **gai** izatea. Eraitza bakarra emango da: **GAII/ EZ GAI**.

Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

IKUSPEGI OROKORRA. Eginkizuna betetzea, erraz ulertzea lehenbiziko irakurketan. Koherentea izatea, hari logiko bati jarraitzea.

BALIABIDE LINGUISTIKOAK (ABERASTASUNA). Lexikoaren aberastasuna. Erregistroa. Egitura aberatsak. Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak. Testu-motari dagokion egitura.

ZUZENTASUNA. Mailari dagozkion egitura morfosintaktikoen erabilera. Lexikoaren erabilera. Puntuazioa. Ortografia.